



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

14. Ordenantza Fiskala

Herri erabilerako lurak merkatugaiekin, erainkuntzako materialekin, hondarrekin, hesiekin eta bestelako instalazioekin atzemaleagatiko tasa

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Herri Erabilerako Lurak Merkatugaiekin, Eraikuntzako Materialekin, Obra-hondakinekin, Hesiekin, Astokoekin, Aldamioekin eta Bestelako Instalazioekin Atzemalearen ziozko tasa ezarri da. Tasa horretan honako ordenantza hau izango da eraentzaile; ordenantzaren arauak bat datoz abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauan adierazitakoarekin.

II. ZERGA EGITATEA

2. ARTIKULUA

Zerga-egitatea Udalaren herri-jabariaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia da.

III. TASA ORDAINDU BEHARRA

3. ARTIKULUA

Tasa ordaindu beharra Udalak lizentzia ematen duenean sortuko da, edo aprobetxamenduari ekiten zaionean, baldin eta baimenik gabe hasten bada.

IV. SUBJEKTU PASIBOA

4. ARTIKULUA

1. Ordenantza honetan araupetutako tasa ordaindu behar dute Udalaren herri-jabaria beren mesederako gozatu, erabili edo aprobetxatzen dutenek; zergadunen ordezkioak eraikitzaileak edo obra-kontratadunak izango dira.

2. Ez dute tasa hau ordaindu behar:

Nahiz eta lizentzia eskatu beharko duten ez dute tasa hau ordaindu beharrik izango: ongintzako erakundeek, ongintza-helburuekin zuzenean lotutako aprobetxamenduengatik.

V. ZERGA OINARRIA

5. ARTIKULUA

Tasaren zenbatekoa kasuan kasuko elementuen motaren eta ezaugarrien arabera izango da, bai eta aprobetxamenduak dirauen denboraren eta atzematen den herri-bidearen azaleraren arabera ere.

VI. KUOTA

6. ARTIKULUA

Tasaren tarifak honako hauek izango dira:

KONTZEPTUA	EUROAK
1. Herriko bidea eraikuntza-gai eta materialekin atzematea Herriko bidea edo herri-erabilerako lurrak obra-hondakin eraikuntza-material, obra-txabola zein antzerakoekin antzematea edo industriariiek diharduten industria edo dendaren material edo gaiekin. . Metro karratu edo frakzioko, egunean	1,15
2. Obra-material bildu edo hondakinak botatzeko bagoi, bagoitxo metaliko edo edukiontzi eta ibilgailuekin atzematea Herriko bidea edo herri-erabilerako lurrak obra-materialak bildu edo hondakinak botatzeko bagoi, bagoitxo metaliko edo edukiontzi eta ibilgailuekin (kasu horietan, gutxieneko okupazio-azalera 10 m ² -koa dela jotzen da) atzematea . Egunean unitateko	11,75
3. Hesiak, zurrutak, astokoak, aldamioak, etab. a) Herri-bidea edo herri-erabilerako lurrak hesi, aldamio eta antzerako elementuekin atzematea: . Metro karratuko edo zatikiko, egunean	0,37
4. Industrialdeetan herriko bidea okupatzea. Herriko bidea instalazio mugikor, karpa edo iraunkor ez diren antzerakoekin antzematea, okupazioak, herritarrentzat udal interes publikoa eta soziala duela bidezkotzen denean, herrian enplegua eta bertako industri ehunaren lehiakortasuna sustatzeko. . Metro karratuko hilean	1,09

VII. KUDEAKETA ETA DIRU BILKETA

7. ARTIKULUA

Udalak autolikidazio araubidean eskatu ahal izango du tasa hau.

8. ARTIKULUA

Obrak hamabost egun baino gehiago badaude etenda bidezko karirik gabe, bigarren tarifa aplikatuz sortzen diren kuotei ehuneko ehun gehituko zaie biharamunetik hasita; obrak amaitu



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

14. Ordenantza Fiskala **Herri erabilerako lurak merkatugaiekin, erainkuntzako** **materialekin, hondarrekin, hesiekin eta bestelako instalazioekin** **atzemateagatiko tasa**

ondoren aprobetxamenduak bere hartan jarraitzen badu, kuotei ehuneko berrehun gehituko zaie errekaru gisa.

9. ARTIKULUA

Bakarreko erabilerak edo aprobetxamendu bereziaren ondorioz, udaleko herri-jabaria hondatzen edo narriatzen bada, onuradunak, dagokion tasa ordaintzeari kalterik egin gabe, berreraikitze- edo konpontze-lanen gastuen kostu osoa itzuli beharko du eta, hala dagokionean, zenbatekoa aurrez jarri beharko du, Udalak horrela eskatzen badu.

Egindako kalteen ondorioz, ondasuna osorik ordeztu behar bada, Ermuko Udalari kalte ordaina emango zaio, eta kalte-ordaina ondasun berria jartzeak balio duenaren parekoa izango da.

10. ARTIKULUA

1. Ordenantza honetan araututako aprobetxamenduetarako baimena lortu nahi duten berezko pertsonak edo pertsona juridikoek eskabidea aurkeztuko diote Udalari eta bertan zehatz-mehatz adierazi beharko dituzte nolako den aprobetxamendua, zenbat iraungo duen, non egingo den, nola mugatuko den, eta, oro har, aprobetxamendua zehazteko behar diren gainerako datu guztiak ere bai.

2. Aprobetxamenduaren iraupena zehaztu ezean, Administrazioak aprobetxamenduak ustez iraun lezakeen denboragatik likidatuko dio prezio publikoa interesatuari eta horren berri igorriko dio. Nolanahi ere, tasaren zehaztapena Udalaren fiskalizazioaren eta berrikuspenaren menpean egongo da; Udalak bere teknikari eta agenteen bidez burutuko ditu bi ekintza horiek.

VIII.AZKEN XEDAPENA

Herri Erabilerako Lurak Merkatugaiekin, Eraikuntzako Materialekin, Obra-hondakinekin, Hesiekin, Astokoekin, Aldamioekin eta Bestelako Instalazioekin Atzematearen ziozko Tasa arautu duen Ordenantza 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2025eko abenduaren 31ko 249. alean argitaratu eta gero, eta halaxe egongo da aldaraztea edo indargabetzea erabaki arte.